



DURANGO

SAN
FAUSTO
JAIAK

2023

URRIAREN 12TIK 22RA



JAKINARAZPENAK

- Jaietan eta bereziki San Fausto egunean, animatu egiten zaitugu Durangoko jantzi tradizionala janztera (alkondara zuria eta gona edo praka urdinak).
- 16 urtetik beherako umeek debekatuta dute helduentzako "Zezenak dira" ekitaldian parte hartzea.
- Jai Batzordeak eskubidea du egitarauan aldaketak egiteko.
- Egitarauan aldaketarik balego, herritarrentzako informazio puntuetan, **Durango Kulturaz Blai** app-an eta **www.durango.eus** webgunean agertuko dira.
- Udalak ez du erantzukizunik izango jai ekitaldietan gertatu litezkeen istripuetan.



GUNEAK

saltzaile ibiltarien gunea

Askatasun Etorbidean.

TXOSNAK

Landako Gunean. Txosnagunean egingo diren ekintza guztiak Txosna Batzordeak antolatutakoak dira.

BARRAKAK eta ZEZEN PLAZA

Tren-kotxera zaharretan. Sensibilitate bereziko umeentzako egunak barraketan (musika eta zaratarik gabe): Urriaren 15, 18 eta 19an, 17:00etatik 19:00etara. Urriaren 19an, barraken prezioa %50ekoa izango da.

BIZKAIBUSEN ZERBITZU BEREZIAK

22:30ak eta 6:30ak artean Bizkaibuseen bakarrik bidaiatzen duten emakumeek aukera izango dute lineako geldileku ofizialak ez diren geldialdiak eskatzeko (401/2019 Foru Agindua). Autobusa hiri bideetan geldituko da espaloien ondoan edo oinezkoen pasabideen gainean, betiere, argia dagoen lekuetan eta inguruan eraikinak dituztenetan.

MIREIA ELKOROIRIBE

ALKATE ANDREA



Durangoko San Fausto jaiak heldu dira! Durangarrontzat hain bereziak diren egunak ate joka dauzkagu. Bereziak familiarekin, koadrilarekin eta aspaldian elkar ikusi ez ditugun lagunekin jai giroan berriz ere tarte goxoak partekatzeko egunak direlako. Bereziak durangar sentimendu eta izate horrek gu guztiok batzen gaituelako. Eta niretzat, oso bereziak, Durangoko alkate gisa biziko ditudan lehen jaiak izango direlako.

Lerro hauek ematen didaten aukera aprobetxatu nahi dut Jai Batzordea osatzen duten pertsonen, herriko elkarten eta udaleko teknikarien lana bihotzez eskertzeko. Gustu eta adin guztietarako jarduerak dituen programazioa diseinatzen, gogotsu eta ilusio handiz, lan egin dutelako.

Era berean, aurtengo txupineroak zoriondu nahi ditut. Oso momentu berezia eta polita bizitzeko aukera izateaz gain, festez beste modu batean gozatu ahaliko dute, artopilen banaketa bezalako ekitaldi tradizioaletan parte hartuz.

Horrekin guztiarekin, guztiok egun politak pasatzea nahi dut, eta, batez ere, aurtengo sanfaustoak errespetuaren, tolerantziaren eta berdintasunaren eredu izatea, non guztiok eta batez ere emakumeok, askatasunez eta lasaitasunez gozatu ahal izango dugun. Soilik bai da baietz.

Egun hauetarako antolatutako ekintzetan ilusioz eta alaitasunez parte hartzera eta disfrutatzeraz gonbidatu nahi zaituztet.

Gora San Fausto!
Gora Durango!

MUGARRA TRIATLOI TALDEA



2004an sortu genuen Mugarra Triatloi Taldea. Sasoi hartan, Durangon ez zen oso ezaguna igeriketa, txirrindularitza eta oinezko lasterketa uztartzen dituen kirol hau, baina lau zororen kontua zenak gorakada nabarmena izan du Muga-

rraren eskutik. Hiru diziplinak batuz, hamaika kirolari durangar zein Durangaldeko elkartu izan ditu taldeak: haur, gazte eta heldu, nor bere mailan, aniztasunari lekua eginez eta talde-giro alaian beti.

Durangon kirola eta bizi-ohitura osasuntsuak sustatzea du helburu Mugarrak. Triatloi Eskolaren bitartez, haur eta gaztetxoengan zale-tasuna bultzatzen du, besteak beste, asteroko entrenamenduetan, udalekuetan zein txikienentzat antolatutako lasterketetan. Lehiakortasunetik urrundu, eta elkartasunean eta berdintasunean gozatzen dugu triatloiaz, kirolaren aurpegi sanoena aurkitu nahian.

Triatloira, gaztetan zaletu zein gerora gerturatu, Mugarran guztiontzat dago lekua. Bizikleta irteerak, igeriketa masterra, lasterketen aitzakian sortzen diren planak... Indibidualetik asko daukan gure kirol hau askoz ederragoa da taldearen babespean. Mugarratik, Durangorentzat eta durangar denentzat, triatloia probatu eta dastatzeko aukerak sortzen jarraituko dugu aurrerantzean ere, urriaren 7an egin berri ditugun Mendi Duetloia eta Duetloi Popularra horren adibide.

Jaietan ere, denon parte hartzea aldarrikatzen dugu, eta bazterketa eta zapalkuntza guztiak irmoki salatzen ditugu. Zaindu ditzagun gure buruak eta geure ingurua San Faustoetan. (Gogoratu biharamuna kentzeko ez dagoela kirola baino erremedio hoberik!)

gora inolako erasorik gabeko san Faustoak!

gora Pantxike eta Patxikotxu!

KURUTZIAGA IKASTOLA

HERRITIK SORTU GINEN HERRIARI EMOTEKO

Orain dela 55 urte, euskara eta euskal kulturaren kontrako oldarkeria betean, sortu zen Kurutziaga ikastola. Hainbat guraso euskaltzalek eman zioten euskarari lur bat Durangon, beraien seme-alabek euskaraz jolasteko, ikasteko, bizitzeko... aukera izan zezaten. Gure eskerrik beroenak beraiei.



55 urte igaro dira lehenengo harri hura jarri zenetik. Ordutik, ibilbide luze honetan, eraikitzen haziz joan da Kurutziaga ikastola. Baina bere sorrerako helburuak ez ditu ahaztu, euskara eta euskal kultura ardatz izanda, bizitzarako hezitzen jarraitzen du ikastolak, herriarekin konprometituta, herritik sortu ginelako herriari emoteko.

Asko izan dira, eta oraindik ere badira, Durangon euskararen alde lan egin duten pertsonak. Zoritxarrez, ez dira garai onak gure hizkuntzarentzat, lanean jarraitu behar dugu euskaraz bizitzeko aukera izan dezagun. Eskerrak eman nahi dizkiegu Durangon euskararen alde lanean dabilzan guztiei, euskara bizirik mantentzeko ahalegina egiten duen orori, kanpotik etorri eta gure hizkuntza ikasteko ahalegina egiten dutenei, euskara maitatu eta gozatzen dutenei... Jaietan ere, goza dezagun euskaraz!

Gure herriarekin daukagun konpromisoak jaietan aktiboki parte hartzera garamatza. Herritarrek elkarlanean antolatutako ekintzetan parte hartzeko deia egin nahi dizuegu durangar guztioi, eta ekintza hauetan arduraz goza dezazuela. Izan dadila Durango, jaietan ere bai, **GUZTIONTZAKO** herri segurua eta gozamenerako askea.

gora Pantxike! gora Patxikotxu!

gora Durangoko umeak!

gora Durangoko Jaiak!



SAN FAUSTOETARAKO ERASO SEXISTAREN KONTRAKO DEKALOGOA

1 Jaietan harreman osasuntsu, aske eta berdintasunez-koak sustatuko ditugu, errespetuan eta tolerantzian oinarrituak.

2 Denok izango dugu jaietan berdintasunean primeran pasatzeko eskubidea, giro osasuntsu eta atseginean.

3 SOILIK BAI DA BAI. Ados zaudeten jakin behar duzu; isiltasuna ez da baimena.

4 Onartu **BETI** ezetza erantzun gisa, tematu barik. Emakumeak ez jazarri eta ez jarraitu.

5 Alkohola eta beste sustantziak ez dute **INOIZ** erasoak justifikatzen.

6 Ez dugu ez txiste, ez piropo, ez burla sexistarik onartuko.

7 Emakumeen itxura, jarrera edo janzteko modua errespetatu dezagun, askatasun pertsonala bermatuz.

8 Eraso matxisten aurrean jarrera aktiboa izango dugu: ez dugu beste alde batera begiratuko, horrek konplize egiten gaitu eta.

9 Indarkeriaren biktima den edozein emakumeri laguntza eta babesa emango diogu, hartu duen erabakia errespetatuz, horrekin bat etorri ez arren.

Erasoren bat sufritu edo ikusi ezkerro, deitu 747 459 584 telefonora

SAN FAUSTOETAN ERASOEN KONTRAKO ARRETA ETA INFORMAZIO ZERBITZUAK



GUNE MOREA

LANDAKOKO TXOSNAGUNEAN
22:00etatik 01:00etara
Urriak 12, 13, 14, 20 eta 21

ERASOTUA IZAN BAZARA EDO ERASOREN BAT IKUSTEN BADUZU, EKIN!



24 ORDUTAKO ARRETA ETA ESKUHARTZERAKO TELEFONOA

747 459 584

Urriak 11, 12, 13, 14, 15, 20, 21 eta 22



Beharrezkoa dela ere uste baduzu, deitu:

112 SOS DEIAK

ERTZAINZA DURANGO

94 466 93 00

UDALZAINGOA DURANGO

94 603 00 10



**ERASO
SEXISTARIK
EZ!**

2023 san Fausto Jaiak



Larunbata
7

08:00 PERRETXXIKOEN BILKETA.

Irteera Ezkurditik. *Antolatzailea: Errotari Elkarte Mikologikoa.*

09:00-14:00 XIII. Durangoko **AZOKA EKOLOGIKOA** Andra Marian.

Antolatzailea: Marisatsa elkarte.

16:30 XAKEko lagunarteko txapelketa Landako Gunean.

Antolatzailea: Larrasoloeta Xake Taldea.



Igandea
8

11:00 XXIII. MIKOLOGIA

ERAKUSKETAREN edizioa, XXI.

Argazki mikologikoen lehiaketa eta perretxikoak sailkatzeko 16 urtetik beharokoentzako XXI. Lehiaketa Landako Gunean. *Antolatzailea: Errotari Mikologia Elkarte.*

11:00 Mañaria **ERREKAREN GARBIKETA**. Hasiera: Pinondon.



Astelehena
9

MUS, TUTE, BRISKA, ISEL, BILLAR ETA PING-PONG txapelketen hasiera nagusientzat.

Izen ematea doan izango da, **urriaren 3tik 8ra** arte, adinekoentzat udal egoitzako kafetegian. Plazak zozketa bidez emango dira **urriaren 9an**. *Laguntzailea: Cafés Baqué.*



MUS TXAPELKETA



PERRETXXIKOEN BILKETA



Asteazkena
11

19:30 KALEJIRA Santa Anatik txosnagunera. *Antolatzailea: Txosna Batzordea.*

20:00 Txupinazioa txosnagunean **KARRIKA ANTZERKI TALDEA**ren eskutik.

21:30 Kontzertuak txosnagunean: **INSÖMNIJA, DUBE, EZTA ILEN** eta **NEVADAH**.



osteguna
12

TXUPINAZOIA

DURANGO RUGBY TALDEAREN EGUNA. MOZORROA: "ETXE SORGINDUA"

11:00 Kuadrilen konzentrazioa eta animazioa San Fausto auzoan. Animazioa. **JAIK BADATOZ!**

12:00 Patxikotxuri ongi etorria San Fausto auzoan. Ondoren koadrilen jaisiera, Landako Gunetik etorritako Pantxikerekin, udaletxeko plazaraino **SUGARRI** fanfarrearekin eta **XAIBOR** animazioarekin.



SUGARRI FANFARREA



LA KERMÉS DEL VERMÚ IKUSKIZUNA

13:00 TXUPINAZOIA udaletxeko plazan (zeinu-hizkuntza interpreteta egongo da). 2023ko txupineroa: **MUGARRA TRIATLOI TALDEA. GORA SAN FAUSTO JAIK!**

13:30 Lau musikaririk eta aktorea batek eguerdia alaituko digute **LA KERMÉS DEL VERMÚ** ikuskizunarekin, Ezkurdin. (Eguraldi txarrarekin, Jesuitak ikastetxean).

osteguna 12

16:00–19:00 Txikienezako **HAUR PARKEA** Landako eskolan. (Euria bada, Landako eskolako frontoian).

17:00 **URBAN JAIA** Ezkurdin: graffiti, break-dance eta beat-box tailerrak eta erakustaldiak. (Euria bada, San Antonio ikastetxean).

18:00 "Nudo" zirko eta antzerki ikuskizuna, **ROJO TELÓN CIRCO** konpainiarekin Aurora Abasolo parkean. (Euria bada, Kurutzia ikastolan).

19:00 **FESTA-POTEOA** San Fausto auzotik. *Antolatzailea: Centro Social San Fausto.*

19:00 Nagusientzako dantzaldia **LA CARROCERIA** taldearekin. 60 eta 70 hamarkadetako kantak Andra Mariko elizpean.

**BEAT-BOX ERAKUSTALDIA**

21:00 **TXIMELETAK** eta **JOSELONTXOS** fanfarrien arteko norgehiagoka kaleetatik.

21:30 **DJ MARATOI HERRIKOIA** txosnagunean.

22:00 **BATUKADA** San Fausto auzotik.

Antolatzailea: Centro Social San Fausto.

22:00 Kontzertua Ezkurdin: **RAIMUNDO EL CANASTERO.**

**"NUDO" ZIRKO ETA ANTZERKI IKUSKIZUNA****RAIMUNDO EL CANASTERO**

ostirala
13
San Fausto
Eguna

07:00 Diana **JAIZALE** taldeko txistulariekin.

07:30 **ZEZENAK DIRA** dultzaineroekin.

09:30 **DURANGO IRRATIA AIREAN!** Ezkurdin. Zuzeneko solasaldiak Durangoko udal ordezkariekin eta herritarrekin.

**ZEZENAK DIRA****PAELLA TXAPELKETA**

11:00 **PAELLA TXAPELKETA**

San Fausto auzoan.

Izen-ematea: San Fausto frontoian.

Paellak aurkezteko epea: 14:00etan. Sari banaketa 14:30etan. *Antolatzailea: Centro Social San Fausto.*


11:00 **MEZA** nagusia San Fausto elizan.

11:00–14:00 Txikienezako **HAUR PARKEA** Landako eskolan. (Euria bada, Landako eskolako frontoian).

11:00–14:00 Gaztetxoentzako **JOLASAK** Ibaizabal parkean. (Euria bada, San Antonio ikastetxean).

11:00–13:00 Haurrentzako **TAILERRAK** Ibaizabal parkean. (Euria bada, San Antonio ikastetxean).

Antolatzailea: Iñurri Eskaut Taldea.

**HAUR PARKEA**

ostirala 13**12:00 PONIAK ETA ZALDIK**

Ibaizabal parkean. (Euria bada, ez da egingo).

12:00 Ume eta familientzako JOLASAK txosnagunean.**12:00 IPUINA INGELESEZ**

3 eta 8 urte arteko haurrentzat Aurora Abasolo parkean. (Euria bada, Musika Eskolan). *Antolatzailea: KIDS&US.*

12:00 KALEJIRA Musika Eskolako txistulariekin.**12:30 PAELLA TXAPELKETA**

txosnagunean. Sari banaketa 14:00etan.



NIMÚ TALDEA

12:30 Txalaparta, ohorezko aurrekua eta **ARTOPILEN BANAKETA** udaletxeko plazan. Ondoren, **DURANGOKO DANTZARIAK**. (Euria bada, Andra Mariko elizpean).

13:00 "JACUZZI" ZIRKO IKUSKIZUNA NIMÚ taldearekin Ezkurdin. (Euria bada, Kurutziaziaga ikastolan).

13:30 DURANGO KANTARI, EGUNDO !! taldearekin Andra Mariko elizpean.

16:30 Haur eta familientzako egurrezko **JOLASAK** Ezkurdin. (Euria bada, Jesuitak ikastetxean).

17:00 Mañaria **ERREKAREN JAITSIERA** Tabiratik. *Antolatzailea: Txosna Batzordea.*

17:00 TXOKOLATADA San Fausto auzoan. (Euria bada, San Fausto frontoian). *Antolatzailea: Centro Social San Fausto.*



ERREKAREN JAITSIERA



LINDY HOP SWING

17:30 Haurrentzako **JOLASAK** San Fausto auzoan. (Euria bada, San Fausto frontoian).

Antolatzailea: Centro Social San Fausto.

18:00 "Bi ipuin" antzezlanaren **TOMAXEN ABENTURAK** taldearekin Aurora Abasolo parkean. (Euria bada, Kurutziaziaga ikastolan).

18:30 DANTZARO EINGO taldearekin Andra Mariko elizpean.

18:30 BROKEN BROTHERS BRASS BAND Pinondotik txosnagunera. *Antolatzailea: Txosna Batzordea.*

19:00 LINDY HOP SWING dantzaldia zuzeneko musikarekin Otamotzena parkean. (Euria bada, Plateruena Kultur Aterpean).

20:00 FESTA POTEOA San Fausto auzoan. *Antolatzailea: Centro Social San Fausto.*

21:00 ZESENSUZKOA San Fausto auzoan.

21:00 Kontzertua Ezkurdin **NEBRASHKA**.



NEBRASHKA



EN TOL SARMIENTO



SKABIDEAN

22:00 DISKODANTZA San Fausto auzoan.

22:00 Kontzertua txosnagunean **IBIL BEDI**.

23:00 Kontzertua Ezkurdin **EN TOL SARMIENTO**.

00:00 Kontzertua txosnagunean **SKABIDEAN**.



Larunbata 14

07:00 Diana **JAIZALE** taldeko txistulariekin.

07:30 **ZEZENAK DIRA** dultzaineroekin.

08:30 **SUKALKI TXAPELKETA** Landako Gunean. Izen ematea eta informazioa Intxaurren **irailaren 19tik aurrera**, plazak bete arte. *Laguntzaileak: Hiper Eroski Abadiño eta Cafés Baqué.*

11:00–14:00 Txikientzako **HAUR PARKEA** Landako eskolan. (Euria bada, Landako eskolako frontoian).

11:00–14:00 Gaztetxoentzako **JOLASAK** Ibaizabal parkean. (Euria bada, San Antonio ikastetxean).



JAIZALE TXISTU TALDEA

11:00 Durangoko **PILOTA ESKOLAKO PARTIDUAK** San Fausto pilotalekuan. *Antolatzailea: Durango Pelotazale Kluba.*

12:00 **KALEJIRA** Musika Eskolako txistulariekin.

12:00 **ARTE MARTZIALEN KALEJIRA** Urkiola kaletik hasita, alde zaharretik eta erakustaldia Ezkurdin. (Euria bada, Ezkurdi Frontoian). *Antolatzailea: Club Deportivo Wado Kan Karate-Ninjutsu.*

12:00 Gazte kamiseta banaketa txosnagunean.

12:30 Gazte **KALEJIRA** Santa Anatik txosnagunera. *Antolatzailea: Txosna Batzordea.*

12:30 Bilbainadak **BOGORODITSIE** abesbatzarekin alde zaharretik.

13:15 Show musikala **ANDONI OILOKIEGI** kantariarekin Andra Mariko elizpean.

14:30 Gazte bazkaria txosnagunean.



DURANGOKO PILOTA ESKOLAKO PARTIDUAK

16:00–19:00 Txikientzako **HAUR PARKEA** Landako eskolan. (Euria bada, Landako eskolako frontoian).

16:00 **SKATE** erakustaldia eta tailerrak Landako skate pistan. (Euria bada, ez da egingo).

16:30 Musika animazioa **AINHOA DJ**arekin Landako Gunean.

17:00 **TORTILLA TXAPELKETA** San Fausto frontoian. *Antolatzailea: Centro Social San Fausto.*



HERRI KIROLAK

17:00 Gazte **JOLASAK** txosnagunean.

17:00 Familientzako **HERRI KIROLAK** Ibaizabal parkean. Animatu eta parte hartu! (Euria bada, Maristak ikastetxean). *Antolatzailea: Auzo Alai elkarte.*

17:30 **KUIR EZTANDA** poteo transmaribolloa Pinondotik txosnagunera. *Antolatzailea: Txosna Batzordea.*

17:30 Senegaleko erritmoak **M'LOMP** elkartearekin Ezkurditik hasita.

18:00 **GAZTE KARROPOTEOA** txosnagunetik hasita.

18:00 **"GLUPS" KALE IKUSKIZUNA**, Yllana & Nacho Villar konpainiarekin Ezkurditik hasita. (Euria bada, Andra Mariko elizpean).

18:30 Tangoen ekitaldia Plateruena Kultur Aterpean **LA TIPICA ORKESTRA**rekin (Montevideo-Durangoren arteko anaikidetasunaren ekitaldien barruan). Dantzen erakustaldia eta ondoren, milonga.



TORTILLA TXAPELKETA



LA TIPICA ORKESTRA

Larunbata 14

19:00 Musika korala **CORAL SPIRITUAL MALLORCA A L' OCTAVA** taldearekin San Frantzisko Elizan.

19:00 XXXIX. San Fausto **ZESTA PUNTA TXAPELKETA**. Finala Ezkurdi Jai Alai pilotatekuan. *Antolatzailea: Durango Jai Alai Zesta Eskola.*

19:00 – 21:00 Haurrentzako **DANTZALDIA** animatzailearekin San Fausto auzoan. *Antolatzailea: Centro Social San Fausto.*

19:30 80 eta 90 hamarkadetako musika **LOWE BAND** taldearekin (Duncan Dhu, Los Secretos, Miguel Ríos eta Fito-ren kantak) Ezkurdin.

21:00 **ZEZENSUZKOA** San Fausto auzoan.



ZEZENSUZKOA

21:30 Animazioa alde zaharretik **GHANAKO TXARANGA**rekin.

22:00 Dantzaldia San Fausto auzoan. *Antolatzailea: Centro Social San Fausto.*

22:00 DJ-ak txosnagunean: **LES SAUVAGE MJ** eta **DJ EROMENA**.

22:30 **ACERO ORKESTRA** Madalena auzoan.

23:30 Kontzertua Ezkurdin: **CARLOS JEAN**.



DJ EROMENA



CARLOS JEAN

Igandea
15
umeen
Eguna

07:00 Diana **JAIZALE** taldeko txistulariekin.

07:30 **ZEZENAK DIRA** dultzaineroekin.

10:00–13:00 San Fausto **HAUR MARRAZKI LEHIAKETA** San Fausto auzoan. Izen-ematea: 10:00-12:00. Adina: 6 urtetik 17ra. *Antolatzailea: Centro Social San Fausto.*

10:30–14:30 **ARTISAU AZOKA** Eixu Artisau Elkartearekin Ezkurdin.

11:00 **XAKE TXAPELKETA UMEENTZAT** Andra Marian. Aldibereko partidak. *Antolatzailea: Larrasoloeta Xake Taldea.*



11:00–14:00 Txikientzako **HAUR PARKEA** Landako eskolan. (Euria bada, Landako eskolako frontoian).

11:00–14:00 Gaztetxoentzako **JOLASAK** Ibaizabal parkean. (Euria bada, San Antonio ikastetxean).

11:00 Umeentzako **GOITIBEREN JEITSIERA** probak eta tailerrak Tabira auzoan.

11:30 **KALEJIRA** erraldoi eta buruhandiekkin alde zaharretik.

12:00 **KALEJIRA** Musika Eskolako txistulariekin.

12:00 **PATXIKOTXUREN KALEJIRA KURUTZIAGA IKASTOLA**rekin Ezkurditik udaletxeraino, erraldoi eta buruhandiekkin lagunduta. Ondoren, ohorezko aureskua.

12:30 **TXUPINAZO TXIKI KURUTZIAGA IKASTOLA**ren eskutik udaletxe plazan.

13:00 Erromeria **LUHARTZ** taldearekin Ezkurdin.



LUHARTZ TALDEA

Igandea 15

13:00 "DURANGO URIA" XXIII. margo lehiaketaren sari banaketa Ezkurdiko erakusketa aretoan.
Antolatzailea: Durangaldeko Artisten Elkartea.

14:00 NAGUSIENTZAKO BAZKARIA Landako Gunean orkestrak girotua.

14:30 HERRI BAZKARIA San Fausto auzoan.
Antolatzailea: Centro Social San Fausto.

16:00 II. GOITIBEREN JEITSIERA Tabira auzoan.

16:00–19:00 Txikienezako **HAUR PARKEA** Landako eskolan.
(Euria bada, Landako eskolako frontoian).

**CÍA LA TAL**

17:00 BITSA JAIA, txokolatada eta saltsa dantzaldia Murueta Torre auzoan.
Antolatzailea: Murueta Torre Auzo Elkartea.

18:00 eta 19:30 (2 pase) Familia guztiarentzat antzerki pieza laburra (25 minutukoa): **CARRILLÓN IKUSKIZUNA** Kataluinako CÍA LA TAL taldearekin Aurora Abasolo parkean. (Euria bada, Kurutzia ikastolan).

18:00 MASKOTEN ERAKUSTALDIA San Fausto frontoian.
Antolatzailea: Centro Social San Fausto.

18:30 Erromeria **LUHARTZ** taldearekin Ezkurdin.

19:00 IMANOL kantariari omenaldia "Imanol oroituz" kantaldiarekin. San Agustin Kultur Gunean. Sarrera: 8 €.
Antolatzailea: Herria auzo elkarte.

20:00 Magia ikuskizuna Andra Mariko elizpean, "Un, dos, tres... magia" **SUN MAGO**aren eskutik.

**SUN MAGO****ostirala**
20

17:00 GURUTZE GORRIaren ate irekien jardunaldiak Ibaizabal parkean. Simulazioa 19:00etan. (Euria bada, San Antonio Ikastetxean).

19:00 TORTILLA TXAPELKETA txosnagunean. Sari banaketa 20:30ean.

19:00 ELEKTROTXUFLA elektrotxaranga alde zaharretik.

20:00 Durangoko **ABESBATZEN KONTZERTUA** Santa Ana eleizan: Durangoko Orfeoia, Bogoroditsie eta Izar Gaztea.

20:00 BOCA BEATS komedia Andra Mariko elizpean.

**BOCABEATS****HUNTZA TALDEA**

21:00 ZESENSUZKOA San Fausto auzoan.

22:00 Kontzertuak txosnagunean: **NAKAR, TOC** eta **BIZNAGA**.

22:30 BERTSOLARIAK San Agustin Kultur Gunean: Maialen Lujanbio, Amets Arzallus, Onintza Enbeitia, Nerea Ibarzabal, Gorka Pagonabarraga eta Eneko Abasolo "Abarkas".
Gai-jartzailea: Unai Iturriaga.
Gonbidapen zenbakituak Arte eta Historia Museoko leihatilan, **urriaren 10etik aurrera** eta leku guztiak bete arte.

23:00 Kontzertua **HUNTZA** taldearekin Ezkurdin.

**BERTSOLARIAK****NAKAR**



Larunbata
21
MOZORRO EGUNA

TXOSNA GUNEKO MOZORRO EGUNA.
GAIA: "ARTE ESZENIKOAK"

07:00 Diana **JAIZALE** taldeko txistulariekin.

07:30 **ZEZENAK DIRA** dultzaineroekin.

11:00 **XAKE TXAPELKETA** federatu eta federatu gabeentzat Ezkurdin. Izen-ematea txapelketa hasi baino ordu erdi lehenago. *Antolatzailea: Larrasoloeta Xake Taldea.*



11:00–14:00 Txikientzako **HAUR PARKEA** Landako eskolan. (Euria bada, Nevers ikastetxean).

11:00–14:00 **HAUR TAILERRAK** ASEBIER elkartearen eskutik Landako eskolan. (Euria bada, Nevers ikastetxean).

11:00–14:00 Gaztetxoentzako **JOLASAK** Ibaizabal parkean. (Euria bada, San Antonio ikastetxean).

12:00 **KALEJIRA** Musika Eskolako txistulariekin.

12:00 Kalejira trikitilariekin **TXIRI TXIRI** taldearen eskutik.

12:00 **PATATA TORTILLAREN XIV. TXAPELKETA** Landako Gunean. Mailak: 15 urtetik beherakoak / 16 urtetik gorakoak. Izen-ematea eta informazioa: Intxaurren irailaren 26tik aurrera, plazak bete arte.

12:30 Haurrentzako **XAIBOR** disko-festa Ezkurdin.

13:15 Bilbainadak Andra Marian: **GAUPASA.**



XAIBOR DISKO-FESTA

13:30 **ELKARTASUN BERMUTA** eta gildak txosnagunean, KSKA kolektiboaren pintxadarekin girotua. Bitartean, elkartasun mozorro argazkiak.

16:00–19:00 Txikientzako **HAUR PARKEA** Landako eskolan. (Euria bada, Nevers ikastetxean).

17:00 **ANIMAZIOA** trikitixarekin pertsona nagusien egoitzetatik.

18:00 Kalejira **SUGARRI** fanfarrearekin Madalenatik.

18:30 Zirkoa eta antzerkia Aurora Abasolo parkean **PROYECTO KAVAU**ren eskutik "Lullaby" ikuskizunarekin. (Euria bada, Kurutzia ikastolan).



GO!AZEN KARAOKEA



"LULLABY" ZIRKOA ETA ANTZERKIA

18:30 Taldekako **MOZORRO DESFILEA** Madalenatik Ibaizabal parkeraino. Bukaeran sari zozketa. Izen-ematea: **urriaren 2tik 19ra** Intxaurren.

18:30 **ASTRONOMIA** eskulan tailerrak: suziriak, eskornagots eta abar Zuhatzola parkean. (Euria bada, ez da egingo). *Antolatzailea: Izarra Astronomia Elkarte.*

20:00 Karaokea **GO!AZEN**-ekin Ibaizabal parkean.

21:00 Behaketa astronomikoa Zuhatzola parkean. (Euria bada, ez da egingo). *Antolatzailea: Izarra Astronomia Elkarte.*

21:00 **ZEZENSUZKOA** San Fausto auzoan.

22:00 Kontzertua txosnagunean: Aiaraldeko **SOINU SISTEMA.**

23:00 **VULKANO** orkestra Ezkurdin.

00:00–03:00 Alkoholemia kontrolaren **STAND INFORMATIBOA** txosnagunean.

Antolatzailea: Durangoko Merinaldearen Amankomunazgoko Drogamenpeketasunen Prebentziorako Arloa.



VULKANO ORKESTRA



Domeka
22

07:00 Diana **JAIZALE** taldeko txistulariekin.

07:30 **ZEZENAK DIRA** dultzaineroekin.

10:30 Nesken eta mutilen San Fausto XI. Padel txapelketaren finalak Landako kiroldegian.

Antolatzailea: Padel zaleak.

11:00–14:00 Txikientzako **HAUR PARKEA** Landako eskolan. (Euria bada, Landako eskolako frontoian).

11:00–14:00 Gaztetxoentzako **JOLASAK** Ibaizabal parkean. (Euria bada, Landako Gunean).

12:00 **TABIRA MUSIKA BANDAK** emanaldia eskainiko du J.M. Barandiaran egoitzan.

12:00 **TXIKI TXEF TAILERRAK** Tabira auzoan. (Euria bada, San Antonio ikastetxean).

12:00 **KALEJIRA** Musika Eskolako txistulariekin.

12:00 **PONIAK ETA ZALDIAK** Ibaizabal parkean. (Euria bada, ez da egingo).

12:00–14:00 **ARKU TIRORAKO GUNEA** Ibaizabal parkean. (Euria bada, Landako Gunean).

12:30 **HERRI KIROLAK** Ezkurdin: Hodei Ezpeleta (Euskal Herriko Txapelduna), Alex Txikon, Goizeder Beltza, Bihurri, Karmele Gisasola (Euskal Herriko Txapelduna), Nerea Egurrola (Euskal Herriko Txapelduna) eta Carlos Aretxabaleta. (Euria bada, Landako Gunean).

13:15 Kontzertua **TABIRA MUSIKA BANDA**rekin Plateruena Kultur Aterpean.



TXIKI TXEF TAILERRAK



IRULITXA

16:00 **ARKU TIRO TXAPELKETA** Landako Gunean. *Antolatzailea: Durangoko arkulariak.*

17:00 Dantza modernoa, garaikidea eta urbanoa **L'ATELIER DANTZA ESKOLA**-ren eskutik Ezkurdin.

18:00 **BOLEROS 4** taldea Andra Mariko elizpean.

18:30 Kalejira **IRULITXA** fanfarrearekin alde zaharretik.

19:30 **PATXIKOTXURI ETA JAI EI AGUR** esateko udaletxeko plazatik hasita eta tren-kotxera zaharretaraino.

20:00 **JAIEN BUKAERA SU ARTIFIZIALEKIN** tren-kotxera zaharretan.



ostirala
27

20:00 Hitzaldi ikusgarria Udaletxe plazan. **MARGOLAN MUSIKALAK** udaletxeko fatxadan (Hizkuntza: gaztelera). *Antolatzailea: Astola aldikaria - Gerediaga Elkarte.*



Larunbata
28

16:30 **UMEENTZAKO ATLETISMOA** Ezkurdi plazan: jolas dibertigarriak (hesiak, erreleboak, gymkana).
Izen-ematea: durangokiroltaldea@gmail.com
(Euria bada, Landako Gunean).

Antolatzailea: Durango Kirol Taldea.

20:00 Durango **TXISTU KONTZERTUA** 2023 Landako Gunean. *Antolatzailea: Silboberri Txistu Elkarte.*



igandea
29

54. UMEEN EUSKAL JAIA.
Antolatzaileak: Tronperri Dantza Taldea eta Txoritxu Alai Dantza Taldea.

12:00 Talde guztiak Landako Gunean elkartuko dira, kalejira egingo dute eta ondoren **ALARDEA EZKURDI PLAZAN.** (Euria bada, Landako Gunean).

18:00 **HERRI MAITE** taldearen akordeio kontzertua San Frantzisko elizan.



2023 san Fausto JaiaK

Erakusketa EZKURDI UDAL ARETOA

*Antolatzailea: Durangaldeko
Artisten Elkartea.*

XXIII. "DURANGO URIA" LEHIAKETAKO MARGOLANEN ERAKUSKETA URRIAREN 6TIK 15ERA

ORDUTEGIA: egunero 18:00-20:00.
Larunbat, igande eta jai-egunetan
12:00-14:00 eta 18:00-20:00.

DURANGO IRRATIA (107.8 Fm)

SAN FAUSTO JAIETAKO PROGRAMAZIO BEREZIA URRIAREN 12TIK 22RA BITARTEAN

TERTULIAK: goizeko 11:00etatik
aurrera herriko eragile desberdinekin.



zezen plaza

Antolatzailea: Bergarako Zezenak.

ostirala 13

18:00 **GRAND PRIX** kuadrilentzako
jokoak bigantxekin. Sarrera: 3 €

Larunbata 14

18:00 **BIGANTXAK** publiko
guztientzat. Ondoren
gaztetxoentzako poniak. Sarrera: 3 €

Igandea 15

18:00 Euskal Herriko
ERREKORTARIEN IKUSKIZUNA
(saltoak, errekorreak, kolunpioa,
tankredoa...). Sarrera: Nagusiak 5 € ·
Umeak 3 €

Larunbata 21

18:00 **BIGANTXAK** publiko
guztientzat. Ondoren
gaztetxoentzako poniak. Sarrera: 3 €

Igandea 22

18:00 **ERREKORTARIEN
IKUSKIZUNA:** Durangoko eta
Begarako errekortarien arteko
desafioa (hainbat modalitatetan).
Sarrera: Nagusiak 5 € · Umeak 3 €